

Donostian, Diputazio jauregian, 1980.eko Ekainaren 27an, arratsaldeko lauretan, egin du Euskaltzaindiak bere hilabeteko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruorde, A. Irigoyen, P. Lafitte eta J. San Martin euskaltzain jaunak; P. Altuna, N. Alzola, J. A. Arana, J. M. Aranalde, M. Atxaga, P. Charrington, P. Goenaga, I. Goikoetxea "Gaztelu", J. Goikoetxea Maiza, X. Kintana, J. L. Lizundia, L. M.^a Mugika, F. Ondarra, A. Zatarain eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazle jaunak; J. L. Lizundia, Idazkari-ordeak, Idazkari bezala eginik.

J. M.^a Satrustegi Idazkaria eta E. Knörr euskaltzaina, goizeko batzarrean egon arren, arratsalderako beren ezin egona adierazi dute. J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre ta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiria ontzat eman da.

Andima Ibinagabeitia sariketarako epaimahaia izendatzen da: E. Knörr, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi.

A. Polikarpo Iraizoz euskaltzain oso zenaren hutsunea betetzeko, izen-aurrezpena egiteko epea bukatu dela esan du euskaltzainburuak. Era berean, amaitu da Jose M.^a Lojendioren hutsarteko bigarren epealdia. Behar bezala arrazoiturik proposamen bat agertu da J. Haritschelhar, J. M.^a Satrustegi eta E. Knörrek izenpetua, Frantziako Ondarraren alde, Iraizozen hutsartea betetzeko; eta L. Villasante, P. Lafitte eta J. M.^a Satrustegik izenpetua, Patxi Altunaren alde, Lojendioren hutsartea betetzeko. Datorren hilabeteko batzarrean hautatuko dira Arautegiaren arauera.

I. GOIZEKO BILKURAREN BERRI

Arautegian hiru artikuluko gehitzeko gestioa, hots, laguntzaile maila berri batena eta ondasun errejistratzearena egin dela kontu eman du Idazkari-ordeak. Unibertitate eta Ikerkuntza Ministeritzak bere oneritiziko diktamena eman duela, Barne Erregeletan sartzea gomendatuz, adierazi du. Beraz, Barne Erregeletan ezartzea erabakitzeko da eta abagadune hau aprobetxaturik, bide batez, euskaltzainen artean Irai-lerarteko epea irekitzen da, Barne Erregeletako beste artikuluren bat aldatzea edo gehitzea proposatzeko.

Zirkulazio ezaugarriak deritzan hiztegiari euskaltzainek egindako zuzenketak aztertu dira eta zerrendaren zati bat onartua gelditzen da. Ikusteko gelditzen diren oharrak batzordeak zuzenean tratatuko ditu ohargile bakoitzarekin akordio batetara heltzeko. Gainerakoan, hiztegia azken birrespena emanda gelditzen da.

II. DAGOZKIEN BATZORDEEN BERRI

Euskararen Lekukoen batzordea bildu da. P. Altunak, Etxeberri Ziburukoaren Manuel Devotionezcoaren lehen zatia prestatzeko asmoa duela adierazi du. A. Villasanté eta M.^a Pilar Lasartek, Lapeyrenen liburua nola duten prestatuak esan dute, bai grafia, sarrera, hiztegi eta beste xehetasunetan.

Beste zenbait lan asmoen berri eman da. J. Haritschelharrek dio, B. Oartzabalék, Charlemagne Pastoralá prestatu nahi duela. A. Irigoyenek dio, Koldo Zuazo Peru Abarkaren edizio kritikoa ateratzeko asmotan dela, eta Alberto Mardones Erronkari-ko euskararen lekukotasun batzuená: Hualde Mayo, etab. N. Alzolak, Lehenagoko euskaldunak zer ziren, "Frère Innocentius"ena argitara nahi luke.

III. TXOSTENAK

A. Frantzisko Ondarra euskaltzain urgazleak, "Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan" izeneko txostena irakurri du. Euskara galdutako eremuan aurkitzen da Nafarroako ibar hau. Txostengileak eman dituen xehetasun eta oharpen ugariak oso interesgarritzat jo dira. Jarraian, gai honetaz elkarrizketa izan da zenbait galdera eginez.

Justo Garate euskaltzain ohorezkoaren, "Bergarako euskerari buruz" izeneko lana irakurri du euskaltzainburuak. Bertan, batez ere, bere jaioterriko toki izenen etimologiak ematen ditu.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
J. M.^a SATRUSTEGI